

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzandiaren Idazkari-ordea esta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestatutako eta onartutako Euskal Herriko Udalen izendegian, bere 219 zenbakiak datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: **Echevarria** deitzen dena, euskal bertsio ofizialean: **(MARKIN-) ETXEBARRI** da.

Batzorde honek ez du ikusten euskaraz dituen gramatika erregelen arabera “Etxebarriako” esan daitekenik, *Etxebarriko* baizik. Bertakoek gainera “*Etxebarriko* probalekue”, “*Etxebarritik* nator”, “*Etxebarrire* nue”, esaten baidute eta ez “Etxebarriako...”, “Etxebarriatik...”, “Etxebarriara...”. Deklinabidea, beraz, Etxebarrian edo Etxebarrin (nola datorren), Etxebarrira, Etxebarritik, Etxebarriko erabiliko litzateke.

Batzordea konturatzen de alboko urian egon diren anexionismo gogoekatik, hastandura edo nahigabe bat sor araztea etxebarritarrei, baina kontutan kizan behar dute *MARKINA* eskualde baten izena dela, historian hedadura garrantzizkoduna eta gaurko Bizkaiko Jaurerria eta Gipuzkoako Probintziaren populazio entitate hauek hartzen zituena, uri horrez gain: Elgoibar (Villamayor de *Marquina*), Eibar (*Marquina* de Suso), Plaentzia (*Marquina* de Yuso), Mendaro udal berriarren zati nagusia berderen, Debarroan eta Xemein, Barinaga eta Aginaga elizateak, Artibai arroan. *Markina*, euskal toponimoa bestalde, Arabako hiru lekutan agertzen da, bata, Zuia ibarreko herrixka edo populazio entitate txiki bat, eta besteak, Markinizen (erdaraz Marquinez) “*Marquina* de Arriba” eta “*Marquina* de Abajo”, hain zuzen.

Euskal toponomastikaren usuario eta arauetan, argi ikusten de nola izen zabalagoa, kolektiboagoa, determinatzailea, aurretik jartzen dela, alegia, izen bereko baserri-eteak badaude, auzoarena aurretik jarriaz bereizten dira, adibidez, Gazaga-etxebarri eta Eitzaga-etxebarri, biak Zaldibarkoak, baina lehendabizikoa, Gazaga kofradia edo auzokoa eta bigarrena Eitzagakoa. Hori bera udalerrri mailan, Berriz-betzuen, Bernagoiti-betzuen. Bide berberetik doa *Markin-etxebarri* beste aipatu diren —*etxebarri* toponimoekin.

Erdaraz, gaztelania izan baita orain arte, Euskal Herriko parte honetan hizkuntza ofizial bakarra, “San Andres de Echevarria”, “Echevarria de *Marquina*”, “Anteiglesia de Echevarria” eta antzerakoak erabili dira. Kontutan izan behar badirela beste lau populazio entitate izen berekoak:

1. Uribe merinaldean: Galdakao, Bilbo, Basauri tartean; 2. Durangaldean, gaur egun Elorrioko udalbarruan: San Agustin-*etxebarri*, hain zuzen; 3. Leintz ibarreko Artxabaleta udalbarrutian: "Echevarri" erdaraz, euskaraz: *Apoz-Etxebarri* (ikus *Gipuzkoako Udalerri eta Entitateen zerrenda*, Eusko Jaurilaritza, Estadistika Zuzendaritza/Relación de Municipios y Entidades de Guipúzcoa, Gobierno Vasco, Dirección de Estadística); eta 4. Diktamengai honen elizate eta udala.

Bestalde, euskal literaturan, bertso, koplá, kanta eta olerkietan, *Markin-etxebarri*, *Markina-etxebarri* eta abar agertzen da.

Guzti honen ondorioz, esan dezakegu diktamen honi dagokion elizate eta udalaren izena *Etxebarri* dela bertako eta ondokoentzat, baina Euskal Herri osorako beste populazio entitateekin bereiztu beharra dagoenez gero, euskaldungoari, usuarioari eta prezeski, euskal toponomastikaren arauetara jarraiki, ez da ikusten, beste soluziobiderik oraingoz, (*Markin-*) *Etxebarri* edo nahi bada, eta agian hobe, *Markinetxebarri* izendatzea baizik.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta larogitaseigarreneko Urriaren zortzian.

V.º B.º

E. Knörr - Presidente de la Comisión.